



## EL MUNDO, NUESTRA FAMILIA. ETXEAN BEZELA MAKALENAK LEHENAK.

*El mundo, nuestra familia. Etxean bezela, makalenak lehenak* goiburua aukeratu da aurtengo ekitaldirako. Honen bitartez, zera gogoratu nahi da: gure mundu honek desberdintasuna, atsekabea, sufrimendua... eragiten dituela eta, askotan, familia dela euskarria, laguntzailea, zailtasunez jantzitako egoera hauetan. Goiburuak etxekotasuna hedatzeko diosku, mundu zuzen eta anaikoaragoa eraikitzeke, giza familia handia eratzeko eta familia handi bezela bizitzeko. Era berean, familiari senidetasun eta elkartasunaren, gizarte konpromisoaren eskola bezala dagokion balioa aitortzeko.

**IKUSIZ IKASI**  
X SEMANA DE CINE ESPIRITUAL

# EL MUNDO, NUESTRA FAMILIA

## ETXEAN BEZELA MAKALENAK LEHENAK

2017.KO MARTXOAREN 25ETIK ETA 31ERA • DEL 25 AL 31 DE MARZO DEL 2017

Sesión abierta	Sesión escolar	Sesión escolar y Cesto Diocesano
25 marzo	27 al 30 marzo	31 marzo
La familia Belier	Little boy Aviones de papel (E) La familia Belier	Little boy Ghadi La familia Belier

ANTOLATZAILA • ORGANIZAZ: **Bilbao Elizbarrutia** DIOCESIS DE BILBAO PATROKINA • BARRILEK:

[HTTP://IKUSIZIKASI.BIZKELIZA.ORG](http://ikusizikasi.bizkeliza.org)

## LITTLE BOY

Pelikula: Little Boy

Zuzendaria: Alejandro Monteverde

Herraldea: México

Urtea: 2015

Iraupena: 100min.

Generoa: Drama. Bélico.

Gidoia: Alejandro Monteverde. Pepe Portillo

Aktoreen zerrenda: Jakob Salvati, Emily Watson, Kevin James, Tom Wilkinson, Cary-Hyroyuki Tagawa, Eduardo Verástegui, Ben Chaplin, David Henrie, Michael Rapaport, Ted Levine, Abraham Benrubi, Ali Landry, Candice Azzara, Toby Huss, Kelly Greyson, Hatthew Scott Miller, Mrey Stein, Matthenw J Cates.

**SINOPSIA:** 40ko hamarkada. EEBetako herri txiki batean, garapen-arazoak dituen 7 urteko mutikoa bizi da. Aita, bere adiskide bakarra zena, Bigarren Mundu Gerran gerra-tokira borrokatzera doanean, mutikoak gelako ikaskideen eta auzokideen bihozgabekeriari aurre egin beharko dio. (FILMAFFINITY).

**BALORAZIOA:** LHko 5. Eta 6. Mailako ikasleentzat.

**PELIKULAN BARNERATUZ**

Pelikulan, bi pertsonaiek bazterketa jasaten dute beraien esku ez dauden eragileengatik: Pepperrek ez du altuera txikia izatearen errurik eta ez da Hashimotoen errua gerra biztuta egotea. Egoera horretatik abiatu behar dute bi pertsonaia hauek, besteek ezarritako kategoriatik harago joateko prest daudenean egin behar duten bide gogorrari ekiteko. Fedeak indar handia du eta kasu honetan Pepperren suspertzaile nagusia da.

Honen haritik, bereziki interesgarria da honako eszena hau: Pepper magia-ikuskitan batera doa eta bere buruaren indarrak botila mugitzeko diotso magoak. Jendearen iskei aurre eginez, *"ahaztu mundua eta jarri arreta"*, esaten dio magoak mutikoari. Jarraian, Pepperrek mugitu egingo du botila. Esaldi hau guztiz garrantzitsua da zerbait lortu nahi duen eta besteek zer esango beldur denarentzat. Pepper eta Hashimotoen arteko harremanari ere ezar dakioko.

Ondorengo gaiak agertzen dira pelikulan:

- \* Zain egoten dakien maitasuna
- \* Desberdinari harrera egin, hau da, aurreiritziak gainditu.
- \* Fedea:
  - Bizari aurre egiteko indarra ematen duena
  - Ekintzatan, jardueratan..., erukizko Egintzetan, zehazten dena.
  - Sinesgabeekiko elkarriketa eraikitzailean jarduteko dueña.

**1. PELIKULAKO PERTSONAIEK ETA GAIEN AZTERKETA*****PELIKULAN AGERTZEN DEN HAINBAT PERTSONAIA ETA BAKOITZAK ESATEN DUEN***

Mundua handiago ikusten da hortik behetik?	AMA
Lortzeko moduan ote zaude?	LITTLE BOY
Benetan bere adiskidea bazara, ez da inongo gorrotorik izango zure begietan	BORTXATZAILEA
Lortu duzu, arratoitxo!	AITA
Ez dut zerrendarekin lagunduko didan inor.	HASHIMOTO
Etsaiaren aurpegia dut.	P. OLIVER

*BILATU HIZKI-ZOPAN PELIKULAN AGERTZEN DIREN 6 GAI*

- Maitasuna
- Elkarrizketa
- Fedea
- Adiskidetasuna
- Borondatea
- Familia

*IDATZI GAIK ETA LOTU PERTSONAIEKIN***2. ESPIRITUALTASUNA**

**Bistakoa dena, aurreiritziak gainditzeaz ari garenez, Lukasen ebanjelioa jakintzat ez emateko esango diegu neska-mutilei. Begi berriez irakurtzeko esango zaie, "hori entzunda dut, badakit zertaz ari den", delako hori gainditzeko. Hitzean, errealitatean bezala, beti dago ez dakigun gauza berriren bat. Jainkoaren Erreinua mostaza-haziaren antzekoa da, hau da, Jainkoari dagokiona txikia da, hasieran txikia da, apala, Pepperren antzekoa, baina bizi asko darama barruan. Pentsamoldez aldatu behar dugu Jainkoaren kontuetara hurbiltzeko; lehentasuna ez da, esate baterako, katedralera, ondo funtzionatzen duen eta handia den ikuskizunera joatea. Jainkoari dagokiona, txikia da hasieran, ia ikusi ere ez da egiten, baina sentitu egiten da sortzen duen biziaren eraginak nabarmenak direlako.**

*PELIKULAN, MOSTAZA-HAZIAREN PARABOLA AIPATZEN DA*

**"Jesusek jarraitu zuen: Zeren irudiko da Jainkoaren erregetza? Zeren antzeko dela esango nuke? Gizon Batek bere baratzean botatzen duen mostaza-haziaren antzekoa da: hazten da eta zuhaitz egiten, eta txoriek haren adarretan egiten dituzte habiak". Lk 13. 18-19**

- *Zer esan nahi digu Jesusek parábola honekin?*
- *Alderatu parábola pelikulan ikusi duzun eszenaren batekin. Zein edo zeintzuk izan daitezke eszena horiek? Gutxienez hiru daude...*
- *"Fedea, mendiak mugitzen ditu". Zer adierazten du zuretzak esamolde honek pelikula ikusi ondoren?*
- *Pepperrengan dena da txikia; bere izenak ere mostaza-alea dakarkigu burura; hala ere, bere fedea eta borondateak handiak dira. Pelikulako zein zatitan ikus dezakegu hau?*

### **3. EKIN ETA ESKU-HARTU**

#### **PERTSONAL ETA BESTERENEZINA**


##### **Nire familia**

**Protagonistak bere familiarekin duen hartu-emanen sakonduko dugu orain. Aldi berean, ikasle bakoitzak hausnar dezala zein harreman duen bere familiarekin eta zein garrantzia duen familiak bere bizitzan.**

- *Zein eragin du familiak Pepperren bizitzan? Zer eskaintzen diote aitak eta amak?*
- *Zein eragin du familiak zure bizitzan? Zer eskaintzen dizute aitak, amak, anai-arrebek?*

#### **TALDEKA LANTZEKO**

Hona hemen Little Boyren zerrenda:

- 
- *Goseteari jaten eman*
  - *Eskekoari babesa eman*
  - *Presoak bisitatu*
  - *Biluzin dena jantzi*
  - *Gaixoari bisita egin*
  - *Hildakoak lurperatu*

*Gelara eta gizartera hobekuntza ekartzeko egin ditzakegun asmoen zerrenda egin dezakegu denon artean.*

*Seguru hainbat gauza aterako dena.*

*Zerrendan jarritako asmo guzti horietatik zeintzuk bizi dira zure familian? Zeintzuk ez? Zer eskaintzen dizu familian egiteak?*